

EDITORIALA

ELA, indarberrituta

Amaitu berri da XIV. Kongresu Konfederala, eta lehen ondorioa begi-bistakoa da: ELA indarberrituta atera da Kongresutik. Izan ere, Kongresua aukera bikaina izan da oraina aztertu eta etorkizunari begira jartzeko.

ELAk identitate sendoari eman dio garrantzia, anbiguotasuna albo batera utziaz. Abiadura handiko gizarte bizi gara eta askotan abiadura hori baterazina da pentsamendu lasiarekin. Haize gogorrek astintzen gaitu: neoliberalismoaren haizeak. Haize gogor horrek proiektu sindikal, sozial eta politikoak kolokan jartzen ditu. Kapitalismoa hegemonikoa da eta neoliberalak uste dute beren nahiak asetzeko suntsitu dezaketela nahi duten guztia.

ELAk ozen esan nahi izan du sindikalismoa inoiz baino premia handiagoa dela eta inoiz baino politikoagoa izan dehar dela. Eta Kongresuan, beti egin ohi duen legez, ELA saiatu da argi eta garbi hitz egiten. Ez da erraza kontra-botere proiektu bat sostengatzea jarrera argirik gabe. Europan gertatzen ari dena ikusita...

ELA proiektu bizia da eta gizarte eragina du; meritu handia du gure militanteek lortu dutena. Eta identitate sendo hau lortzeko programa edukitzeaz gain, barne kohesio oso garrantzitsua da. Bestela proiektuak berehala zatitzen dira, edota botereak asimilatzen ditu. ELAn ez da halakorik gertatu. ELA kohesio-natutako proiektua da. Eta, Kongresuari erreparatuta, argi dago etorkizunean hori horrela izaten jarraituko duela. Indarberrituta atera gara. Zorionak denori!



#EmanBostekoak!
Garaipekar!

Adolfo Muñoz Txiki reelegido secretario general de ELA, con el 87,50% de los votos

ELA, REFORZADA



INDARBERRITZEN

Indarberritzen. Reforzándonos. Ese era el lema del XIV Congreso Confederal que ELA celebró los días 15 y 16 de junio en el Palacio Euskalduna de Bilbao. El lema y el objetivo: reforzar el sindicato para poder seguir haciendo frente a los numerosos retos que tenemos de cara al futuro. Y es evidente que se ha cumplido el objetivo. Siguiendo el logotipo del Congreso, la batería está cargada. Ahora es hora de desarrollar todo lo debatido por las y los 736 delegados y delegadas sindicales durante los dos intensos días congresuales.

DOS INTENSOS DÍAS DE CONGRESO

El Congreso es el marco para, entre otras cosas, reflexionar sobre el trabajo realizado –debate y votación del Informe de Gestión–, acordar las líneas estratégicas de futuro –debate y votación de la Ponencia General– y elegir el nuevo Comité Ejecutivo. Una propuesta de Comité Ejecutivo que logró el respaldo mayoritario de las y los delegados congresuales, –el 87,50% de los votos–, por lo que Adolfo Muñoz Txiki seguirá como secretario general de ELA.

AGRADECIMIENTO A LA MILITANCIA

Tras ser reelegido como secretario general, Adolfo Muñoz quiso agradecer a las y los congresistas el apoyo recibido, animando a toda la militancia a seguir los próximos años por el camino de la lucha por los derechos de la clase trabajadora. “No hay proyecto sindical de contra-poder sin militancia. Sin militancia no hay sindicato. Por eso, a todas las personas que estamos aquí os pido que cultivéis militantes, como antes otros militantes hicieron con nosotros y nosotras. Es imprescindible buscar gente dispuesta a este compromiso. Hay que salir y contarlo, contagiar la ilusión por un proyecto imprescindible para la Euskal Herria que queremos. Cuando la gente ve que el sindicato es suyo, milita, trabaja desinteresadamente en un proyecto porque cree en él”.

DEBATE... Y MUCHO MÁS

Debates, enmiendas, ponencias, resoluciones, votaciones, propuestas... El Congreso de ELA es eso... y muchas cosas más. También sirve para poder escuchar a diferentes organizaciones sindicales y sociales –tanto de Euskal Herria como internacionales– que están en la lucha con ELA; para reflexionar sobre temas que son centrales para nuestra lucha sindical –precariedad, alternativas, feminismo, derechos sociales, alianzas...–; para agradecer el trabajo que diferentes personas o colectivos realizan por una Euskal Herria mejor –el Congreso realizó un acto de agradecimiento a las y los Artesanos de la Paz–; para dar ánimos a colectivos que están en plena lucha por sus derechos de vida y laborales –las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia tuvieron un sentido reconocimiento durante todo el Congreso–; para saludar y charlar con diferentes compañeros y compañeras del sindicato; para acordarse de las y los militantes de ELA que por diferente motivo ya no están entre nosotros/as...

En definitiva, para cargar las pilas. Para reforzarse. Objetivo cumplido.



BATZORDE ERAGILE BERRIA (IZENA ETA KARGUAK)

- Adolfo Muñoz (Idazkari nagusia)
- Amaia Muñoz (Idazkari nagusiaren albokoa; Iparralde; Diruzaintza)
- Amaia Aierbe (Zerbitzu juridikoak)
- Xabier Anza (Formazioa)
- Ivan Gimenez (Komunikazioa)
- Laura Gonzalez de Txabarri (Nazioarteko Harremanak)
- Pello Igeregi (Negoziazio Kolektiboa; Lan Osasuna; Euskara)
- Mitxel Lakuntza (Nafarroako koordinazioa)
- Mikel Noval (Gizarte Politikak; Azterketa Bulegoa; Ingurugiroa)
- Leire Txakartegi (Planifikazio Estrategikoa; Genero Berdintasuna; Ekintza Soziala; Immigrazioa)
- Eustakio Uranga (Antolakuntza)
- Joseba Villarreal (Sindikalizazioa)



BATZORDE ERAGILEA AUKERATZEKO BOZKETA

BAI 623 boz (%87,50)

EZ 73 boz (%10,25)

Zuriak 16 boz (%2,25)

Baliogabeak 3 boz

INFORME DE GESTIÓN

La presentación, debate y votación del Informe de Gestión del Comité Ejecutivo acaparó gran parte del primer día del Congreso. El informe que resume el trabajo realizado por ELA desde el anterior Congreso Confederado fue presentado por Adolfo Muñoz –secretario general– y Amaia Muñoa –secretaria general-adjunta–, en nombre del Comité Ejecutivo saliente. Posteriormente las y los responsables de las federaciones y comarcas tuvieron su turno de réplica. Tras un amplio y rico debate los 736 delegados y delegadas congresuales aprobaron por unanimidad el Informe de Gestión presentado.

“EL SINDICALISMO TIENE QUE SER MÁS POLÍTICO QUE NUNCA”



Adolfo Muñoz hizo en primer lugar una lectura de la coyuntura económica y social. “El capitalismo es una máquina de destruir derechos. El sistema expulsa a las personas, y luego se les hace echa en cara su responsabilidad y su desgracia, cuando han debilitado todas las herramientas de solidaridad que tenían. El capital, los empresarios, no quieren coger responsabilidades sociales. No hay más que ver lo que pasa con la fiscalidad. El beneficio es privado; el fracaso, individual, y la responsabilidad de lo que le pasa a cada uno y una, también. La ley de la selva”.

Muñoz considera que la socialdemocracia tiene gran responsabilidad en esta coyuntura. “Ha renunciado a ser un contrapeso al neoliberalismo; no es nuestro referente. Necesitamos otra izquierda política. Una izquierda que se fortalezca haciendo en favor de políticas alternativas, que rechace el consenso neoliberal, una crea en las alternativas, que haga frente al neoliberalismo. Queremos una izquierda política fuerte, necesitamos recuperar esa izquierda para hacer frente a la hegemonía de la derecha política y económica”.

En este contexto, dejó claro que el mayor obstáculo que tiene la patronal para conseguir sus objetivos somos los sindicatos. “Los partidos sistémicos están en lucha para ver quién es el que mejor sacia a los patrones. Les dicen una y otra vez que están de su lado. Cada vez es más difícil distinguir quién es el responsable del gobierno y quién el empresario. No hay opciones de ser Diputado de Hacienda, Diputado General o Lehendakari si el candidato/a no está de acuerdo con el punto de vista patronal”.

EL MÉRITO DE LA MILITANCIA

El secretario general destacó que estos últimos años el trabajo sindical se ha complicado, por lo que cree



que lo que está haciendo ELA tiene un gran mérito colectivo. “El enemigo planifica para que el sindicalismo sea irrelevante. Por eso hemos dado centralidad a la mejora organizativa”.

Muñoz acusó al Gobierno Vasco de prácticas thatcherianas. “El Gobierno Vasco desarrolla un plan contra el movimiento sindical de contrapoder. Son intolerantes con todo aquello que construye y articula la sociedad. Les estorba todo lo organizado que no controlan, que no acepta relaciones clientelares. El sindicalismo es un obstáculo para los neoliberales”.

FISCALIDAD AL SERVICIO DE LA PATRONAL

Durante su intervención Muñoz denunció que las decisiones sobre fiscalidad se toman en un club privado. “El sistema de decisión es opaco, no hay ninguna transparencia, ni participación. No hay ningún país moderno y democrático donde los ingresos, la fiscalidad, no se decida por quien asume la mayor responsabilidad en el gasto. Las Diputaciones son Reinos de Taifas que defienden los intereses de los empresarios. Hoy la democracia es un concepto vacío”.

CONTRA LA PRECARIEDAD LABORAL

La lucha contra la precariedad laboral, uno de los ejes de ELA, fue un punto central de su discurso. “Si el objetivo estructural es la precariedad, que lo es, el sindicalismo debe contar con medios para hacerle frente. Hay que sindicalizar empresas y sectores y contar con medios para luchar. Las huelgas son largas por las resistencias patronales a negociar. La Caja de Resistencia es estratégica para aguantar y ganar la batalla a la precariedad. En una sociedad donde se imponen con-

diciones de trabajo miserables las huelgas son un síntoma de funcionamiento democrático de la sociedad. Una sociedad con injusticias, explotación y sin huelgas es lo más parecido a una dictadura. No podemos olvidar el conflicto de las residencias de Bizkaia. Es difícil encontrar más desprecio al trabajo de las mujeres”.

AUTOGOBIERNO Y PROCESO SOBERANISTA

En opinión de Muñoz, lo único bilateral entre Madrid y Gasteiz es la aplicación de las políticas de ajuste estructural. “El Gobierno Vasco no tiene voluntad para desarrollar el Marco Vasco de Relaciones Laborales y de Protección Social. Las alianzas las hacen con las fuerzas políticas contrarias a ese objetivo y con la patronal, a la que el marco legislativo español le resulta muy rentable. No existe voluntad de confrontar democráticamente con el Estado. La políticas neoliberales compartidas explican los acuerdos. El neoliberalismo y la soberanía social y política son incompatibles”. También destacó que en Navarra el cambio solo se consolidará si es social. “Sin cambios sociales un Gobierno progresista se desgasta. El cambio político no se debe resumir solo a avances en materia de euskera y la reivindicación de la memoria histórica”.

ALIANZAS SOCIALES Y SINDICALES FUERTES

El último punto fue el tema de las alianzas sociales y sindicales. “Para que la izquierda no relativice el modelo de sociedad el sindicalismo debe desplegar todo su potencial en lo laboral, social y político. Buscando una nueva dialéctica. La potencialidad de la alianza ELA-LAB, con otras organizaciones sindicales y sociales, es indiscutible”.

“GAKOIA, INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA ETA POLITIKOA”



Amaia Muñoak hartu zion txanda Adolfo Muñozen Kudeaketa Txostena defendatzerakoan. “ELA inoiz baino autonomia da. Aurreko kongresutik hona kuoten pisua handituz joan da –diru-sarreraren %92,63–. Une honetan gure finantza-autonomia %94,40koa izatera heldu da. Aurreko kongresu-aldian geneukana baino lau puntu gorago dago; datu bikaina da. Gure autonomia, finantzariora eta politikoa, oinarritzko atala da ELAren eredu sindikalean, beraz poz-oz gaude”.

Nahiz eta kongresuen arteko aldian ELAK afiliazioan galduta –ELAK aurreko kongresuaren garaian 105.312 afiliatu zituen, orain 98.960–, Muñoak joera hori aldatzen ari dela nabarmendu zuen. “Afiliazioan galera izan dugu, krisiagatik

eta enplegu-suntsipenagatik; baina beheranzko joera hori 2016an aldatzen hasi zen, eta aurten afiliazio-emaizta netoak positiboak dira. Datuak aztertuz gero, ikusten da afiliazioa bide onetik abiatu dela”.

Muñoak ELAK gogoan beti darabilen ideia bat azpimarratu nahi izan zuen: “Afiliazioak autonomia ematen digu. Ezin dute sindikatua isilarazi, loturirik inorekin ez dugulako. Gure jendearen ez beste inoren esanetara gaude. Eta krisian turrustan gainera erori zaiguna ikusita, ez dugu besterik afiliazio-oinarria zabaltzea baino. Etorbizunari begira gero eta gehiago izan behar gara”.

Beste ardatzetako bat hauteskundeetan lortutako emaizta bikainak izan ziren. “Aurreko kongresura heldu ginenean gure ordezkari-tza-maila %39,59koa zen EAEn, eta %21,26koa Nafarroan. Lau urte geroago, %40,35 eta %23,10 lortu ditugu, hurrenez hurren. EAEn gure marka historikotik hurbil gaude, baina Nafarroan sobera gainditu dugu. Hamarren batzuk besterik ez zaizkigu falta komunitate horretako bigarren sindikatua izateko”.

Azkenik Muñoak, errebindikazio-sindikatu baten kasuan, Erresistentzia Kutzaren garrantzia agerian utzi zuen. “Negoziazio kolektiboaren alde zaudela esatea eta tresnarik ez jartzea demagogia hutsa da”.

PONENTZIA OROKORRA

ETORKIZUNARI BEGIRA

Ponentzia Orokorrak ELAk hurrengo urteetan jarraituko dituen ildo estrategikoak zehazten ditu. Beraz, Ponentziaren inguruko eztabaidak tarte handia izan zuen ELAren XIV. Kongresu Konfederalean. Lau izan ziren Nazio Batzordearen izenean Ponentzia Orokorra aurkeztu zuten lagunak: Mikel Noval, Joseba Villarreal, Leire Txakartegi eta Mitxel Lakuntza. Lauek Ponentziaren inguruko irakurketa luze eta pausatua egin zuten. Ponentzia Orokorraren aurkezpenaren ostean sindikatuko kide eta militanteek landutako zuzenketa ezberdinak eztabaidatzeko eta bozkatzeko txanda izan zen. Ondoren Ponentzia bere osotasunean bozkatu zen, eta aho batez onartua izan zen.

MIKEL NOVAL – EREDU SOZIALA

“BIDEGURUTZE BATEAN GAUDE: KAPITALA ALA BIZITZA DAGO JOKOAN”



“Planeta kinka larrian dago, eta, beraz, Euskal Herria ere bai. Hitz gogorak dira, baina errealitate hutsa da. Izan ere, klima aldaketa errealitate bat da, eta gu guztiok mehatxatzen gaitu. Sistema aldatu behar da, ez klima.

Eredu sozioekonomiko alternatibo honetan sakontzea beharrezkoa da, areago, ezinbestekoa, pairatzen dugun krisi sistemikoa dela eta. Eraldatze horrek esan nahi du, halaber, politika publikoak goitik behar aldatu behar direla, lehenetsuna eman

diezaioten bizitza eta Lurra jasangarriak izateari, eta ez enpresen eta kapitalaren interesei. Gainera, funtsezkoa da benetako alternatiba sozioekonomikoak sortu eta erakitzea, eta eredu aldaketa honetan partaide diren eragileekin aliantzak sustatzea.

Hamaika erronka ditugu etorkizunari begira. Eta helburu horiek lortzeko aliantzak behar dira. Iruzur fiskalari aurre egiteko, bestelako zerga sistema bat izateko edo aurrekontu neoliberaleri aurre egiteko indar harremana hobetu behar dugu. Hau guztia egiteko aliantza sindikal eta sozial indartsuak behar ditugu.

Bidegurutze baten aurrean gaude, datozen urteetan berebiziko garrantzia izango duen bidegurutzea. Kapitalaren eta bizitzaren arteko konfrontazio argi bat dago. ELAn bizitzaren aldeko hautua egin dugu. Eta bizitzak ez badu irabazten, gureak egin du. Biziraupena dago jokoan. Eta bizirauteko trantsizio ekonomiko, produktibo, erreproduktibo, sozial eta klimatikoa behar dugu”.

LEIRE TXAKARTEGI – ANTOLAKUNTZA

“ANTOLAKUNTZA BEHAR DUGU JENDEA AHALDUNTZEKO”



“Antolakuntza, zertarako? Pertsonak ahalduentzeko. Eta hori lortzeko erakunde sendo bat behar dugu.

Antolakuntzaren alorrean bi berrikuntza nagusi daude: genero-ekitatea lortzeko antolakuntza aldaketa eta planifikazioa. ELA erakunde aurrerakoa eta ezkerrekoa da, baina horrek ez du esan nahi berdintasunaren inguruko estrategia oso bat daukagunik. Geuk ere,

gure eguneroko funtzionamenduan, birsortzen ditugu ezberdintasun egoerak. Emakumeen eskubideen defentsa eta genero berdintasuna sindikatuaren aldarrikapen nagusietako bat bezala kokatu behar dugu”.

Planifikazioari dagokionez, bizi dugun testuinguru oldarkor honetan ezinbestekoa dugu gure lanaren kalitatean jauzi bat emateko era planifikatuan lan egitea, ildo estrategikoak ondo marraztea, lehenetsunak finkatzea, helburu neurgarriak ezartzea, horretarako ekintza egokiak erabakitzea... Eta hau zuzendaritzatik hasita, sindikatu guztiaren jarduna kontutan hartuko duen planifikazioaren bitartez.

Soilik horrela lortuko dugu lantokiak eta sektoreak sindikalizatzeko plan erreala izatea; prekaritatearen analisia txertatuta daukaten plan eraginkorrak, genero perspektiba, belaunaldien arteko desberdintasunak eta langileen artean dauden kolektibo ezberdinen beharrak kontutan izango dituztenak”.

JOSEBA VILLARREAL – NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

“GATAZKARAKO AHALMENA IRABAZI BEHAR DUGU”



“Zoritxarrez asmatu egin dugu lan erreformaren helburuak zeintzuk ziren azaldu gendean: lan baldintzak behera bota, eskubide kolektiboak urratu eta berme eta eskubideak deuseztatzea. Hau guztiagatik patronalak negoziazio kolektiboa blokeatzen du. Ez dauka negoziatzeko borondateirik, beharrik ere ez dauka, akordioak egiteko aukera bakarra patronalaren edukietan sinatzea da, salbuespenak salbuespen.

Datozen lau urteei begira helburu nagusia prekaritatearen aurkako borroka da. Egoera ezberdinei aurre egin behar diegu lan zentro zein sektoretan: lanaldi partzialak, outsourcing enpresak, Aldi Baterako Enplegu Enpresak, azpikontratazioa, miseriazko soldadak, lanaldi luzeak, lege iruzurra kontratazioetan, aldi baterako kontratuak... Honetarako ezinbestekoak izango

dira lan planak eta antolakuntza. Negoziazio kolektiboa eta antolakuntza txapon beraren aurpegi bera dira. Gatazkarako ahalmena irabaztea ezinbestekoa zaigu eta sindikatu honek daukan baliabide eta tresna guztiak horren zerbitzura jarri behar ditugu: liberatuak, militanteak, zerbitzu juridikoak, kabinete ezberdinak...

ELAk obsesio bat du: gatazkarako ahalmena irabaztea. Lan eta bizi baldintzak hobetzeko ez dago gatazka baino bide egokiagorik; arazoak ez dira inongo bulego edo akordioa potoloetan konponduko. Gure esku dagoen guztia egiteko borondate irmoa daukagu. Gatazka maila igo egin behar dugu”.

MITXEL LAKUNTZA – ARLO POLITIKOA

“ALDEBIKOTASUN BAKARRA POLITIKA NEOLIBERALAK EZARTZEKO DA”



“ELAK konpromiso argia du gure herriaren eskubide nazionalen defentsarekin. Burujabetzaren aldeko prozesu baterako proposamena egin nahi du ponentziak. Herri honek pultsu-politikoak galdu du, baina horrek ez du esan nahi abian jartzeko aukera eta ahalmenik ez dugunik. Horretarako ahuleziak aitortu eta indarguneak bultzatu behar dira. ELAK gauza bat oso argi du: burujabetza prozesu hau soziala izan behar da, eta aldebakarretik bultzatu beharreko prozesua izango da. Horretarako aliantzak ezinbestekoak dira; ELAk eta LABek burujabetzaren aldeko prozesua aktibatzeke eta aberasteko dugun ahalmena oso handia da. Arlo instituzionalean ere burujabetzaren aldeko prozesu sozial horren aldeko hautua norabide horretan joan behar du.

Sistema demokratikoaren kalitate eskasa da. Gero eta muturrera eraman nahi den estrategia neoliberalaren isla da ere Euskal Herrian gauzatu dena. Sindikatua legez kanporatzeko eskaerak, grebari jarritako mugak edo Eusko Jaurlaritzak gutxiengoan bultzatutako mahaia eta akordioak dira demokraziak bizi duen atzerapen horren adierazle.

Autogobernuari dagokionez, Euskal Herrian ez dago aldebiotasunik. Estatuak ahal duen bakoitzean agerian uzten du ez dagoela prest herri honetan hartzen diren erabakiak errespetatzeko. Ez dago aldebiotasunik Euskal Herriko eta Espainiako instituzioen artean. Asmakizun bat da, gezur bat, hori bai, oso funtzionala politika neoliberalak sustatu nahi dituztenentzako”.

INDARRERRITUTA!



Langile indarra. Bizkaiko Erresidentzietako langileek omenaldi hunkigarria jaso zuten Kongresuko amaiera ekitaldian. Eurak izan ziren protagonista nagusiak oholza gainean.



Kongresuak iraun zuen bi egunetan zehar Di-Da-ko lagunek mural ikusgarria egin zuten Euskalduna Jauregian bertan. Ondoren, murala 1.200 zatitan banatu eta Kongresuan parte-hartu zuten lagunei zati bat banatu zitzaien. Izan ere, ELAk dituen milaka militanteen batura da sindikatuaren benetako indarra.



736 izan ziren Kongresuan parte-hartu zuten ordezkariak; bi egunetan eztabaida mamitsua izan zen.



Asko izan ziren Kongresura etorri ziren Euskal Herriko eta nazioarteko gonbidatuak. Lagun guzti horiei, gure esker ona!



Batzorde Eragile berriaren bozketa.



Lehen egunean Bakearen Artisauak sindikatu osoaren aitortza eta esker ona jaso zuten. Egindako lan apartak hori eta askoz gehiago merezi izan du.



www.ela.eus / [@ELAsindikatura](https://twitter.com/ELAsindikatura) / [ELA-Facebook](https://www.facebook.com/ELAsindikatura)

ELA  **astekaria**
EUSKAL SINDIKATUA

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207